



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2019ko urtarrilaren 21etik 25erako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: PMIak



Datuaren analisisia

MIaren datu konposatuaren atariko irakurketa abenduko 51,1etik 50,7ra jaitsi da urtarrilean; 66 letan izan duen hazkunde-erritmotik txikiena. Markiten arabera, inkestako datuek BPGd-aren ruhileko hazkundera % 0,1ekoa izaten ari dela adierazten dute. Izan ere, hala manufaktura-koizpenaren hedapena (50 hiletako minimoetan, abenduko 51,4tik 50,5era jaitsi ostean), nola zerbitzuen sektorearen hazkundera (65 hiletan izan duen daturik txarrena, aurreko hileko 51,2tik 50,8ra jaitsi ondoren) moteldu egin dira. Herrialdeei begira, manufakturen PMIak pixka bat hobera joan duen arren, Frantziako jarduera pribatuak azken lau urteko jaitsierarik handiena izan du urtarrilean. Alemanian, bestalde, PMI konposatuaren datuak gora egin du pixka bat, nahiz eta aindik azken lau urtetako makalenen artean dagoen.

Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Erreferentzia ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten aurreratu baten antzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datuak erakusten dituzte, etorkizuneko ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ZEW / IFO



ZEW adierazlearen arabera, **Alemaniko inbertitzaileen konfiantzak** gora egin du urtarrean, eta aurreikuspenak -15 puntuen mailan mantendu dira, abenduak -17,5aren eta esperotako -18,5aren artean. Datuak hobera egin badu ere, negatiboa izaten jarraitzen du 2018ko apirilaz geroztik, eta 2,4 puntuko batez besteko historikotik oso urrun dago. Alemaniako ekonomiaren egoeraren alioztapenari dagokionez, **ZEW** indizeak 17,7 puntuko jaitsiera izan du urtarrean, eta 27,6 puntu gutxiago ditu (aurreikusitakoak, 43). 2015eko mailan dago, beraz.

ZEW indizea, bestalde, abenduak 101 puntuetatik 99,1era jaitsi da urtarrean, bere mailarik baxuena 2016ko otsailetik eta elkarren segidako bosgarren beherakada. Gaur egungo egoeraren alioztapenak ere behera egin du (104,9tik 104,3ra), baina aurreikuspenak izan dira batik bat indizea gutxitu dutenak, 97,3tik 94,2ra jaitsi ondoren.

Adierazlearen azalpena

Alemaniko Sentimendu Ekonomikoaren **ZEW indizea** Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

Enpresa-giroaren indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako duera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko galderekin.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: EBZ



Datuaren analisia

2019ko lehen bileran, EBZk minimoetan mantendu zituen interes-tasak, espero zen moduan. Akundea, halaber, interes-tasak igotzeko aukerak urrundu zituen, eta diru-pizgarriari atea ireki zuen, ekonomiaren moteltzeari aurre egiteko. Draghi aitortu zuen "Gobernu Kontseiluko hainbat dekretu TLTRO programen aukera proposatu zutela". Bada, aipatu programak bankari eginiko injezioak dira, ekonomia erreala bideratutako maileguen zorroa handitzeko bideekin gauzatutakoak. Nolanahi ere, hartzen den neurria edozein dela, ez da erakundearen irrengoko bilera baino lehen etorriko, martxoan aldera. Orduan, EBZk hazkunde eta inflazio-irreikuspenak eguneratuko ditu, eta pizgarrien politika berreskuratzeko erabakia ere har dezake.


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta Eurozoneko diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete behar izan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-lazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: RICHMOND ETA KANSAS MANUFAKTUREN

INDIZEAK



Datuaren analisisa

Richmondeko FEDen manufakturen indizeak negatiboan jarraitzen du urtarrilean, nahiz eta hobera egin duen: -8tik 2ra igaro da eta -6an ezarritako aurreikuspenak gainditu ditu. Fabrikatzaileak berriz agertu dira, eta datozen hilabeteotan egoerak hobera egitea espero dute. Inkestaren emaitzak adierazten dutenez, enpleguak eta soldatek hazten jarraituko dute urtarrilean, baina pretsioak langile gaituak lortu ezinean dabilta oraindik.

Richmondeko adierazleak ez bezala, **Kansas City-ko FEDen indize aurreratuak** okerrera egiten jarraitzen du.

Adierazlearen azalpena


Richmondeko Erosketa Kudeatzaileen Indizeak hilero 100 enpresabururi egiten zaien inkesta bat oinarri, Richmondeko manufaktura-sektoreari buruzko galderak biltzen dituena.

Indizearen alderazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten alderazle ekonomiko aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 0tik 100era irakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia kurtzen ari den seinale.

Kansaseko Erosketa Kudeatzaileen Indizeak hiru hiletik behin 300 enpresabururi egiten zaien inkesta bat du oinarri, Kansaseko manufaktura-sektoreari buruzko galderak biltzen dituena. Aurrekoa bezala, adierazle ekonomiko aurreratu bat da.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisisia

anufakturen PMIa 52,6tik 50,0ra jaitsi da urtarrilean. Datu horrek, bada, Japoniako sektore netan azken hamarkadan izan den hedapen-fase luzeenaren amaiera adieraz lezake. portazioek azken bi urte eta erdiko erritmorik bizienean egin dute behera, eta ekoizpena lehen diz murriztu da 2016ko uztailetik. Gainera, munduko hazkundearen moteltzeak larriagotu duen ultasun ekonomikoarekin batera, enpresen konfiantza sei urtetan izan duen mailarik baxuenean katu da.

Adierazlearen azalpena

AI Manufaktura-indizeak hileroko eraketan profesionalen eta enpresetako exekutiboek manufaktura-ktorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean onomiararen egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, ste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, ate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan hi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisisia

BPGd-a % 6,6 igo zen batez beste 2018an, aurreko urtean baino 0,2 portzentajezko puntu gutxiago, urte arteko datuei begira, Asiako herrialdea % 6,4 hazi zen. Datu ofizial horiek oinarri hartuta, zelerazioaren bidera itzuli dela esan dezakegu, Txinako BPGd-ak % 6,7 egin baitzuen aurrera 17an. Hala eta guztiz ere, Pekinek aurreikuspenak gainditzea lortu zuen, ezkortasuna nagusi den ingururu honetan: munduko ekonomiaren moteltzeagatik, Estatu Batuekin duen gerra mertzialagatik eta beste barne-faktore batzuegatik, tokiko eskariaren dinamismo txikiagoa, aterako baterako; eredu ekonomikoaren aldaketaren proposatzeko arrazoi nagusia.

Adierazlearen azalpena

estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak oizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dira, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
01/28	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
01/28	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	-2.1
01/28	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.8
01/28	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$54.0b
29/01	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	88
29/01	Espainia	Langabezia-tasa	% 14.44
29/01	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	125.0
29/01	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.7
01/30	Japonia	Hileko xehekako salmentak	% 0.4
01/30	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 0.9
01/30	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.4
01/30	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
01/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	107.0
01/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.9
01/30	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.6
01/30	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	170k
01/30	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 2.25
01/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 2.3
01/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-14
01/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	53.9
01/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	49.3
01/31	Txina	PMI Composite	--
01/31	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 1.7
01/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.6
01/31	Espainia	Urte arteko BPGd	% 2.4
01/31	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1.2
01/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.9
01/31	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.2
01/31	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
01/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	60.0
02/01	Japonia	Langabezia	% 2.5
02/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
02/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	49.7
02/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	51.0
02/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.2
02/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	49.9
02/01	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	50.5
02/01	Erresuma Batua	Markit, RU Saren PMI fabrikazioa	53.5
02/01	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.0
02/01	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.8
02/01	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
02/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	54.3
02/01	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	--
02/01	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
02/01	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

JRTSA:

iera positiboak Europako eta Asiako burtsetan, nahiz eta (ka bat apalagoak. AEBetan, asteko balantzeak emaitza stoak izan zituen errenta aldakorrari dagokionean. Astea tsu negatiboarekin hasi zen, ekonomiaren moteltzea pero baino handiagoa izango ote zen beldurratik; izan a, Txinako laugarren hiruhilekoko BPGd-a moteldu egin la argitaratu zen eta NDFren hazkunde-aurreikuspenak herantz berrikusi ziren. Merkataritza-arloan, hil amaierako tzarrera begira, Estatu Batuetako eta Txinako goziaztaileen arteko harremana arriskuan egon zitekeela (in zenean, gero gezurtatu zena, urduritasuna zabaldu zen erkatuetan. Gero, egunak aurrera joan ahala, bertiztaileak zertxobait baikorrago agertu ziren. Alde tetik, Txinako Finantza ministroak 2019an aurrekontu-stua handituko dela jakinarazi zuen, herrialdeko hazkunde onomikoa bultzatze aldera. Brexitari dagokionez, ostutako irteera baten edo bigarren erreferendum baten lako jarrerak nagusitzen hasi ziren. Horren ondorioz, erak balioa irabazi zuen, Ftse indizearen kalterako. Izan a, nazioarteko merkatuetan presentzia handiagoa izan en, indizeak behera egin zuen asteon, gainerako indize roparrek ez bezala. AEBetan, larunbatean, Trumpek ordioa egin zuen herrialdeko Gobernu aldi batez kitzeko, Kongresuak eta Etxea Zuriak negoziatzen raitzen duten bitartean. Ostegunean egin zen EBzren 19ko lehen bilera. Draghiren tonu lasaiak, diru-pizgarrie ak irekiz, kalte egin zion banku-sektoreari.

ERRENTA FINKOAK:

lantikoaren bi aldeetan, erosketak nagusitu ziren zor iblikoan. Asteko lehen zatian, inbertitzaileek babes bila jo itenez, burtsen bilakaera negatiboa izan zen. Gero, EBZk akutsi zuen zuhurtziari esker, Europako tasak baretu egin en, ziurgabetasun politikoaren eta ekonomikoaren inetik. Gainera, merkatuak 2020ra arte atzeratu zituen ru-erakundeak tasa ofizialetan egingo dituen lehen ugimenduak. Kredituak, bestalde, diferentzialak pixka bat itutu zituen.

BISAK / LEHENGAIK:

abarmentzekoa da gainerako dibisen aldean liberak izan en goraldia, Brexit gogorra behartzeko aukerak gutxitzen en aldi berean. Draghiren adierazpenek euroa ahuldu zuten ere, aste amaieran Europako dibisak balio pixka bat bazi zuen dolarraren aurrean. Lehengaietan, petrolioaren ezioa -% 1,47 jaitsi zen AEBen eta Txinaren arteko goziazioek amaiera zorientsu bat izateko itxaropenaren rrean, nahiz eta oraindik bi digituko igoera metatu bat ukuan urteko lehen egun hauetarako.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.527,38	-0,09	5,96
IBEX 35	9.185,20	1,28	7,56
DJ EURO STOXX 50	3.163,24	0,90	5,39
DJ STOXX 50	2.872,17	-0,43	4,06
FTSE	6.809,22	-2,28	1,21
S&P 500	2.664,76	-0,22	6,30
Dow Jones	24.737,20	0,12	6,04
NASDAQ	7.164,86	0,11	7,98
NIKKEI 225	20.773,56	0,52	3,79
MSCI GORAKORRAK (Lo)	56.694,79	1,34	6,13
MEXBOL	43.638,62	-1,36	4,80
BOVESPA	97.677,19	1,64	11,14
SHANGHAI	2.724,50	0,22	4,33
Errusia Rts Mosku	1.192,02	1,33	11,54

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,58	0,00	0,03
ESPAINIA 2 URTE	-0,26	-0,03	-0,02
AEB 2 URTE	2,61	-0,01	0,12
ALEMANIA 10 URTE	0,19	-0,07	-0,05
ESPAINIA 10 URTE	1,23	-0,12	-0,19
AEB 10 URTE	2,76	-0,03	0,07
ALEMANIA 30 URTE	0,78	-0,10	-0,10
ESPAINIA 30 URTE	2,41	-0,16	-0,20
AEB 30 URTE	3,07	-0,03	0,05
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/23	74,81	-1,78	-13,56
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23*	322,46	-0,09	-31,22

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2019
Dolarra / Euroa	1,14	0,42	-0,40
Yena / Euroa	125,20	0,35	-0,33
Libera / Euroa	0,87	-1,79	-3,65
Lehengaiak			
Petrolio (Brendt)	61,16	-1,47	15,03
Urrea	1.303,15	1,67	1,61



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.